

Euskal Selektzioa Orain elkarteak biltzar nagusia egin du Makean

JULENE MURUAGA HIRIART :: 12/01/2025

Frantzia edo Espainiarekin aritzeari uko egin dioten gazteak babestu ditu elkarteak, izan ere, hamabost jokalaria kanporatuak izan dira Frantziako Federazioak proposatzen dituen formakuntzetatik.

Sortu berri duten Euskal Selektzioa Orain pilota elkarteko kideek lehen biltzar nagusia egin zuten atzo, Makeako ezkerparetan (Lapurdi). Aurkezpenak elkartearen abiapuntua markatu zuen: geroke zer gogo eta asmo dituzten azaldu zuten. Adierazi zuten Frantzia edo Espainiako selektzioekin jokatzeari errefusatu duten gazteak babestu nahi dituztela, eta euskal selektzioaren formakuntza zentro bat sortu nahi dutela ere bai.

Iazko udan, Ipar Euskal Herriko hamabost bat pilotari elkartu ziren, eta uko egin zioten Frantziako selektzioari aritzeari. Erabakiaren berri emateko, agerraldi bat antolatu zuten Hendaiaiko Daniel Ugarte Beltzenia pilotalekuan, ekainaren 29an. Hortik, euskal selektzio bat sortzeko gogo piztu zitzaion, eta Euskal Selektzioa Orain elkarteak muntatu zuten azaro bukaeran.

Helburu nagusia dute euskal selektzio bat sortzea, zazpi probintziak elkartuko dituenak. "Abenduaren 28an Euskadiko Selektzioaren ofizialtasuna onartu izana ikaragarria da, baina EAetik kanpo garenak hainbat galdera ditugu oraindik. Nafarroakoak, Zuberoakoak, Nafarroa Beherekoak eta Lapurdikoak zer bilakatuko gara? Zein dira baldintzak?...", adierazi zuen Amaia Larralde elkarteko bozeramaileak. Espero dute elkarrekin ahaleginak eginen dituztela Euskal Herria bere osotasunean hartzen duen euskal selektzio bat lortzeko, eta euskalduna sentitzen den oro Euskal Herriko koloreekin lehiatu ahal izateko.

Azpimarratu nahi izan zuten Frantziako selektzioari uko egin dieten jokalaria gazteak kanporatuak izan direla Frantziako Federazioak proposatzen dituen formakuntzetatik; egoera salagarri zaiela jakinarazi zuen Eñaut Etcheberria Euskal Selektzioa Orain elkarteko kideak, baina, bestalde, onartzen dutela. Hortakotz, adierazi zuten bazterturik gelditu diren gazteak lehenbailehen babestu behar dituztela. Horren harira, formakuntza zentro bat sortu nahiko lukete, eta jokalariei kalitatezko entrenamenduak proposatu. "Hastapenean, pilotari guztiei irekia izanen da, eta ondotik, euskal selektzio bat balitz, sartzeko irizpideak hertsituko genituzke, selektzio bat muntatzeko", esplikatu zuen Etcheberriak.

Baina, esplikatu zutenek, formakuntza zentro bat irekitzeko jende anitz behar dute, baita gauza gehiago ere: materiala, trebatzeko lekuak, entrenatzaile onak... Klubekin, elkarteekin eta instituzio politikoekin harremanetan sartuko direla erran zuten, ahal bezainbat laguntza eskuratzeko xedez. Euskal Herrian sare bat sortu nahi dute Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren arteko harremana sakontzeko. "Herrialde osoa saretu behar dugu, eta ez bakarrik pilotariak, baizik eta jendarte osoa. Sare bat sortu behar dugu gizartean baliagarri den laguntza guztiarekin", azaldu du Jon Larronde Euskal Selektzioa Orain elkarteko kideak.

Sentsibilizazioaren bidez, espero dute pilotari gazteak motibatuko dituztela, “euskal selekzioa haiek osatuko baitute baldin eta egun batez lortzen bada” bukatu du Etxeberriak.

Frantzia edo Espainiarekin aritzeari uko egin dioten gazteak babestu ditu Euskal Selekzioa Orain elkarteak

<https://eh.lahaine.org/euskal-selekzioa-orain-elkarteak-biltzar>